

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartutako beste gai batzuk

*Herri-lurren desafektazioa Barasoain, Añorbe eta Tirapun. Erriberri eta Faltzeseko udaltzainekin elkarlanean aritzeko hitzarmenak. Desjabetzeak Buztintxuri, Itzagaondoa eta Lintzoainen*

Asteazkena, 2018.eko irailak 26

Nafarroako Gobernuak, gainera, gaurko bilkuran ondorengo gaiak adostu ditu:

### **Añorbe, Barasoain eta Tirapun haize-parkeak eraikitzeko herri-lurren 176.000m<sup>2</sup>ren desafektazioa**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Añorbe, Barasoain eta Tirapuko herri-lurretako 176.478 metro koadro desjabetzea onartu du. Lur horiek Gas Natural Fenosa Renovables, S.L.Uri bideratuko zaizkio, Barasoain eta Tirapun haize parkeak eraikitzeko.

Aipatutako lurretatik, 124.928m<sup>2</sup> Añorbekoak dira, 26.113 Barasoainekoak eta 25.437 Tirapukoak. Parkeak plataformak, bideak, haize-sorgailuak, zutabe anemometrikoa, tentsio erdiko lurpeko sarea eta haize-sorgailuen hegoak, zein transforziorako estazioa izango ditu. Lurren uztea 20 urterako izango da, 5 urteko bi epeetan luzatzeko aukerarekin.

### **Erriberri eta Faltzesekin hitzarmenak adostuta, Foruzainak eta udaltzainak larrialdien kudeaketan elkarlanean aritzeko**

Gobernuak gaurko bilkuran adostu ditu, lankidetzan hitzarmenak Erriberri eta Faltzeseko udalekin, udaltzainak Foruzainekin larrialdien kudeaketan elkarlanean aritzeko. Hortaz, bi herri hauetako udaltzainak TETRA izeneko polizi sistemara batu dira, edozein larrialdiren aurrean modu azkar, eraginkor eta koordinatuan erantzuteko. Hitzarmen hauekin, iada 27 udaletako udaltzainak segurtasun sisteman sartuta daude.

### **Buztintxuri-Euntzetxiki-Santa Engrazian hirigintza-jarduketa egiteko ondasunen premia desjabetzea onartu da**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran premia desjabetzea onartu du, ondasunen desjabetzea burutzeko, U-C Buztintxuri-Euntzetxiki-Santa Engrazia Plan Partzialaren ejekuzioak kaltetutako ondasun eta jabetzen okupazioa.

Ekintza hau Iruñeko Udaletxeak bultzatutakoa da, zeinak 2017ko abenduaren 21eko plenoan, udal jabetzakoak ez diren etxebizitza eta lokalen desjabetze expedientea onartu zuen, Buztintxuri-Euntzetxiki-Santa Engrazia proiektuari loturik, zehazki, C/Ferrocarril (Iruñeko 7. poligonoko katastroko 960 lursaila).

Lur horren desjabetze expedientearen arrazoia ondoko espaloia

zabalduta eta bizitegi eremu kolektiboa sortzea da.

### **Itzagaondoa eta Lintzoaingo hornidura lanetarako ondasunen berehalako desjabetzea onartu da**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran, Itzagako Administrazio Zerbitzu Mankomunitatearen "Uraren goi-hornidura: Mendinueta irtenbidearen 6. fasea. Itzagaondoa eta Lintzoainera bideratzea" proiektua burutu ahal izateko beharrezkoak diren ondasunen nahitaezko desjabetzea premiazkoztat izendatu du.

Mankomunitateak Nafarroako Gobernuari premiazko izendapena egiteko eskera luzatu zion lanek eragina duten zenbait herrietara ur edangarria eraman ahal izateko.

Mendinueta irtenbidearen 6. fasea 2017-2019 tokiko Inbertsio Planek finantziatuta dago. Nafarroako Ubidearen zonaldean, Señorío de Mendinueta (hortik irtebindearen izena) alboan dagoen zonaldearen ur hornidurari dagokio. Bomba bidez ura egun Urrotzen dagoen ur-biltegitik, ur-biltegi orokor batera eramango da, hortik lurrazpiko hobien bidez Urroz, Lintzoain, Itzagaondoa eta Untzitiko Udaletxeetako herri ezberdinetara bideratuko da.

### **Nafarroako Kontuen Ganbera Nafarroako Gobernuak 2019-2022 zaintza eta segurtasun pribatuko zerbitzuen esparru-akordiora gehitu da**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justizia departamentuak eta Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako Gobernuaren 2019-2022 zaintza eta segurtasun pribatuko zerbitzuen esparru-akordiorako hitzarmena onartzea erabaki du. Beaumont kontseilariak gidatzen duen departamentuak datozen egunotan esparru-akordio berria lizitatzea aurreikusi du, izan ere 2015-2018rako sinatutako akordioaren epea amaitu da jada. Ganberak bere zerbitzuak eraikin ofizial batean eskaintzen ditu, Foruzaingoaren inspezio eta gainbegiratzearekin, hortaz zerbitzua behar bezala eskaini ahal izateko interesgarritzat jo da Esparru-Akordioa.